LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUA

2026KO UZTAILAREN 22AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratuak

Ander Caballero Barturen jauna, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluko lehendakaria eta Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalerako idazkari nagusia.

Javier Cortés Fernández jauna, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren ordezkari gisa.

Nerea Uriarte Goitia andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

José Luis Atutxa jauna, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ordezkari gisa.

Ignacio Fariña Sarasqueta jauna, Etorkinen Harrera eta Integrazioko zuzendaria.

Arantzazu Arróspide Elgarresta andrea, Plangintza Zuzendaritzako zerbitzuburua.

Miren Elgarresta Larrabide andrea, Emakundeko zuzendaria.

Ignacio Rodríguez Puertas jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Kohesioko zuzendari nagusia.

Ana Priede andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nazioarteko Lankidetzako zuzendaria.

Juan María Balerdi jauna, Euskal Fondoaren ordezkari gisa.

Claudia Astorqui andrea, Arantza Acha de la Presa andrea, Jesús Ochoa Berganza jauna, Iñaki Orube Mendia jauna, Mary Tere Guzmán andrea, Irene Molero Gurrutxaga andrea eta Natalia Rodríguez Fernández andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Natividad Campillo López andrea eta Marta Macho Stadler andrea, lankidetzaren eta elkartasunaren arloko beste euskal gizarte-eragile batzuen ordezkari gisa.

Irantzu Ortega Barrio andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Lehendakaritzak gonbidatuta, hitzarekin baina botorik gabe, honako hauek bertaratu dira:

Leire Elduayen andrea, ingurumenaren arloan eskumena duen Sailburuordetzaren ordezkari gisa.

Amalia Ibarguchi Landazuri andrea, eLankidetzakoa, Kontseiluko Idazkaritzari laguntzeko.

Borja Santamaría jauna, ECOPERreko aholkulari elkartua.

Bertaratu ezin izana adierazi dute:

Asier Aranbarri jauna, Gizarte Berrikuntzako eta 2030 Agendako zuzendaria.

Mikel Hidalgo Bordegarai jauna, Gizarte Berrikuntzako eta 2030 Agendako aholkularia.

Josu Bilbao Begoña jauna, Ingurumeneko sailburuordea.

Alexander Boto Larrabide jauna, IHOBEko zuzendari nagusia.

Iñaki Gurtubai jauna, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Euskara eta Gobernantzako foru-diputatua.

Joana del Hoyo Fernández andrea, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendaria.

Iñigo Eguren jauna, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Mónica González Llamazares andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Antonio José Montoro jauna, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Nati López de Munaín andrea, Euskal Fondoko presidentea.

Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Gorka Urrutia Asua jauna, Silvia Piris Lekuona andrea, Zaloa Pérez Hernandorena andrea, Igone Revilla Uzquiza andrea eta Estela Ciprián Santos andrea, lankidetzaren eta elkartasunaren arloko beste euskal gizarte-eragile batzuen ordezkari gisa.

Mikel Juaristi Izaguirre jauna, Hezkuntza Sailaren ordezkari gisa.

Lekua: Donostia, HABEren egoitza. G-2 ikasgela (4. solairua).

Eguna eta ordua: 2026ko uztailaren 22a, 09:30ean.

Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluko lehendakari Ander Caballerok 2026ko urteko lehen ohiko bilkurari hasiera eman dio, parte-hartzaileei bertaratu izana eskertuz.

Jakinarazi du Kontseiluaren azken bilkura 2025eko abenduaren 15ean egin zela, eta barkamena eskatu du bilkura hau deitzeko izandako atzerapenagatik. Halaber, gogorarazi du bilkura grabatu egingo dela, soilik akta egiteko eta hartutako erabakiak kudeatzeko lagungarri izan dadin.

Jarraian, bertaratutako pertsonen aurkezpen-txanda bat eskatu du, kide eta parte-hartzaile berriak sartu direlako.

Batzorde Iraunkorrak 2026ko uztailaren 7ko bilkuran adostutako gai-zerrenda irakurri du:

1. Aurreko bilkurako akta onartzea.
2. Kontseiluaren 2026rako lan-plana aurkeztea eta adostea.
3. Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kide ez den gizarte-erakunde baten izendapen berria.
4. eLankidetzak urteko lehen seihilekoan egindako lanaren ibilbidea eta EAEko urte anitzeko plangintza-prozesuaren aurrerapenak.
5. Foru-aldundien eta eLankidetzaren 2026ko planei, aurrekontuei eta deialdiei buruzko informazioa.
6. Euskal lankidetzaren jardun-eremuetako espazio zibikoaren itxierari buruzko balorazioa.
7. Euskadiko GGKEen Koordinakundearen jardunaldiei eta Lankidetza Deszentralizatuaren Jardunaldiei buruzko informazioa.
8. Eskariak eta galderak.

Gai-zerrendari eragozpenik jarri ez zaionez, gaiak aztertzeari ekin zaio.

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA

2025eko abenduaren 15ean egindako bilkuraren aktari buruzko oharrik egin ez denez, bertaratutako pertsonek aho batez onartu dute.

2. KONTSEILUAREN 2026RAKO LAN-PLANA AURKEZTEA ETA ADOSTEA

Lehendakariak Kontseiluko Idazkaritzari eman dio hitza.

Irantzu Ortegak jakinarazi du, barne-erregelamenduak ezartzen duen bezala, urteko lehen bilkuran Batzorde Iraunkorrak hurrengo bilkuretarako aurreikusitako datak eta agenda orientagarriak programatu zituela. Hala, Batzorde Iraunkorrak, 2026ko uztailaren 7an egindako online bilkuran, ekitaldi honetarako lan-planaren proposamena onartu zuen, eta Kontseiluaren hurrengo bilkuren gutxi gorabeherako

programazioa egin zuen. Kontseiluaren lehen bilkura honetako gai-zerrenda ere onartu zen.

Aurten hiru bilkura antolatzea adostu da, denbora-arrazoiak direla eta; bigarren bilkura urrian egitea aurreikusi da, eta hirugarrena, abenduan.

Halaber, adierazi du deialdiarekin batera bidalitako Lan Planean akats bat antzeman dela bilkura honetako gai-zerrendari dagokionez; izan ere, Batzorde Iraunkorrak adostutakoaren arabera urrian egitea aurreikusita dagoen 2. bilkuran aztertu behar zen puntu bat sartu da. Zehazki, hezkuntza-politikari lotuta planteatutako intzidentzia-estrategiari buruzko GGKEen Koordinakundearen informazioari dagokion puntua da.

Irantzu Ortegak adierazi du, halaber, hurrengo bilkuretako gai-zerrendak aldez aurretik adostuko direla dagozkien Batzorde Iraunkorretan.

Iñaki Orubek, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko ordezkari eta Batzorde Iraunkorreko kideak, zehaztu du, Kontseiluaren urteko bilkura bakoitzean aztertu beharreko gaien egutegia eta proposamena adostu badira ere, Koordinakundeak hurrengo Batzorde Iraunkorretara proposamenak eramatea aurreikusten duela, hurrengo bilkuretako gai-zerrendak osatzeko.

Iritzi-truke labur baten ondoren, bertaratutako pertsonek aho batez baliozkotu dute 2026rako lan-planaren proposamena; nolanahi ere, hurrengo bilkuretako gai-zerrendak aldez aurretik adostuko dira dagozkien Batzorde Iraunkorretan.

3. EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEKO KIDE EZ DEN GIZARTE-ERAKUNDE BATEN IZENDAPEN BERRIA

Ander Caballerok jakinarazi du, Euskal Kontseilu hau arautzen duen 158/2008 Dekretuaren 3.3 artikuluan jasotzen den bezala, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kide ez diren erakundeen artean hautatutako euskal gizarteko beste eragile batzuen sei ordezkari organo honetako kide direla.

Joan den ekainaren 2an, ZEHAR Errefuxiatuekin erakundeak Euskadiko GGKEen Koordinakundean sartu zela jakinarazi zion Kontseiluko Idazkaritzari. Horren ondorioz, erakundeak Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluko kide izateari utzi dio lankidetzaren arloko beste euskal gizarte-eragile batzuen kategorian, eta ordezkaritza horri dagokion plaza bat hutsik geratu da.

Idazkaritzak proposatu du, plaza huts hori arintasunez betetzeko, 2017an eta 2021ean egindako berritze-prozesuetan adostutako ordezko erakundeen zerrendara jotzea, Kontseiluaren araudi berria onartu arte.

Idazkaritzak gogorarazi du 158/2008 Dekretuaren 4. artikuluak ezartzen duela Kontseiluko kideen izendapenek hiru urteko indarraldia dutela, eta iraupen bereko aldietarako berritu daitezkeela. 2017an eta 2021ean dagozkien berritze-prozesuak egin ziren. 2024an, lankidetzaren arloko beste euskal gizarte-eragile batzuen

ordezkari diren erakundeen izendapenak luzatzea adostu zen, Kontseilua arautzeko dekretu berria izapidetzen den bitartean.

ZEHAR Errefuxiatuekin ordezkatuko duen erakundearen izendapena arintzeko, eta araudi berria prestatzen jarraitzen den bitartean, 2017an eta 2021ean egindako hautaketa-prozesuetako irizpideak eta emaitzak berriz hartzea proposatu da. 2017ko hautaketa-prozesuan, Kontseiluko kide izateko izendatutako sei erakundeez gain, ordezko erakundeen zerrenda bat ezarri zen, honako lehentasun-hurrenkera honetan: Emigrados Sin Fronteras elkartea; Euskadiko Gurutze Gorria; Kolonbia Euskadi elkartea; ACNUR; Malenetxea Emakume Etorkinen Elkartea; ANESVAD Fundazioa; Vicente Ferrer Fundazioa; Derandein Fundazioa.

Ondoren, 2021ean egindako hautaketa-prozesuan, honako erakunde hau geratu zen ordezko gisa: Huancavelika elkartea.

Joan den uztailaren 7an egindako Batzorde Iraunkorraren bileran, erreserba-sistema hori berreskuratzeko proposamena Osoko Bilkurari helaraztea adostu zen, hutsik dagoen postua betetzea errazteko, dekretu arautzaile berria onartzeko prozesuan aurrera egiten den bitartean.

Horregatik guztiagatik, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluko kide izatera igaroko den erakundea, lankidetzaren arloko beste euskal gizarte-eragile batzuen kategorian, Emigrados Sin Fronteras izatea proposatu da, 2017ko hautaketa-prozesuaren ondoriozko ordezkoen zerrendan lehen postuan geratu baitzen. Horrela, gainera, orain arte ZEHAR Errefuxiatuekin erakundeak migrazioen eta babesaren arloan eskaintzen zuen presentziari eta esperientziari eusten laguntzen da.

Eragozpenik aurkeztu ez denez, bertaratutako pertsonek aho batez onartu dute proposamena.

4. ELANKIDETZAK URTEKO LEHEN SEIHILEKOAN EGINDAKO LANAREN IBILBIDEA ETA EAE-KO URTE ANITZEKO PLANGINTZA-PROZESUAREN AURRERAPENAK

Lehendakariak Javier Cortés eLankidetzako zuzendariari eman dio hitza. Azaldu du urte anitzeko proposamena egiteko hasieran aurreikusitakoa baino denbora gehiago behar izan dela, proposamenari oinarri sendoa eta epe luzeko ikuspegi estrategikoa emateko borondateagatik. Azken hilabeteetan, proposamen horren oinarri izan behar duten elementuak zehazteko lan handia egin da, irailetik aurrera inplikatutako eragile guztiekin partaidetzazko eraikuntza-prozesu bat hasteko helburuarekin.

Adierazi du proposamena hiru esparru handiren inguruan egituratuko dela: giza eskubideen babesa eta defentsa, ekintza humanitarioa eta garapen jasangarriko prozesuak lurralde-ikuspegitik. Uste du ikuspegi horiek egungo erronka handiei erantzuten dietela eta etorkizuneko urte anitzeko plangintzaren zutabe izan behar dutela.

Adierazi du garatutako lan-ildoetako bat nazioarteko agendan posizionamendua lantzea izan dela, bai lankidetza-erakundeekin, bai beste sail instituzional batzuekin, gobernantza-maila desberdinekin, esparru akademikoarekin eta ekoizpen-sarearekin adostasunak sortzeko helburuarekin. Azpimarratu du gero eta konbergentzia handiagoa dagoela lurralde-ikuspegiaren eta giza eskubideen babesaren artean.

Bestalde, adierazi du lankidetza 2030 Agenda lurralderatzeko prozesuekin lotzeko lan egin dela, lankidetzak garapen-eredua eraldatzen argi eta garbi lagundu behar duela ulertuta. Ildo horretan, uste du aukera garrantzitsua dagoela lankidetza-politikak 2030 Agenda lurraldeetan ezartzeko prozesuekin lotzeko, azken hilabeteetan proposamena aberasteko eta indartzeko sortutako aukerak baliatuz.

Azaldu du, halaber, indarreko legerian jasotako beste elementu estrategiko batzuetan sakondu dela, hala nola tokikoaren eta globalaren arteko artikulazioan, lurraldeen arteko Hego-Hego eta lankidetza triangeluarrean, bai eta sailen arteko lanean eta beste gobernu-maila eta eragile instituzional batzuekiko koordinazioan ere.

Javier Cortések azpimarratu du aurretiko lan horri esker proposamena sendotu ahal izan dela, nahiz eta partaidetza-prozesuaren hasiera atzeratzea ekarri duen. Hala ere, azpimarratu du prozesu hori plangintzaren funtsezko elementua dela, eta tailerren eta lan-espazioen bidez garatzea aurreikusten dela, inplikatutako alderdi guztien artean adostutako proposamen bat eraiki ahal izateko, eta, horrela, haren eraldaketa-gaitasuna eta jabetze sozial eta instituzionalaren maila indartzeko.

Garatutako nazioarteko jarduerari dagokionez, jakinarazi du aktiboki parte hartu dela Global Gateway Europako politikari buruzko eztabaidetan, giza garapen integralaren eta lurralderatuaren ikuspegia txertatzea sustatuz. Azpimarratu du hainbat eskualderekin eta beste administrazio batzuekin batera lan egin dela Europako garapen-estrategietan estatuaz azpiko gobernuen zeregina gehiago aintzat har dadin, eta ikuspegi horiek Kontseiluak onartutako ondorioetan jasotzea lortu dela.

Halaber, Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) lanetan izandako parte-hartzearen berri eman du; bertan, lankidetza deszentralizatuari buruzko laugarren txostena aurkeztu da. Azpimarratu du euskal erakundeen eta administrazio deszentralizatu guztien ekarpena ikusaraztea lortu dela, ez soilik termino kuantitatiboetan, baita lurralde-ikuspegiak eta tokiko esparruetatik jarduteak dakarten ekarpen kualitatiboagatik ere. Adierazi du, gainera, ikuspegi horiek ELGAk garapenerako lankidetzaren arloan egiten dituen azterketa eta gomendioetan txertatu direla.

Era berean, garapenerako lankidetzaren eraginkortasunari buruzko nazioarteko eztabaidetan izandako parte-hartzea aipatu du; horietan, lurralde-ikuspegien eta

lankidetza deszentralizatuaren presentzia indartzen lagundu da, bai eta tokiko eta eskualdeko gobernuen zeregina eta lurraldeen arteko lankidetza-harremanak ere.

Bestalde, garapen-agenda Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen jarduerekin lotzeko egindako lana nabarmendu du. Adibide gisa, Gazteria, Ongizate eta Erronka Demografikoaren arloekin eta Emakunderekin egindako lankidetza aipatu du, Zaintzen aldeko Aliantza Globalaren esparruan euskal zaintza-politikak nazioartean proiektatzeko. Adierazi du nazioarteko topaketetan parte hartzeak, hala nola Istanbulen egindako eskualdeko goi-bileran, euskal esperientzia gizarte-kohesiorako erronka estrategiko bati aplikatutako maila anitzeko eta eragile anitzeko gobernantzaren adibide gisa aurkeztea ahalbidetu duela.

Azkenik, Justizia eta Giza Eskubideen Sailarekin etorkizuneko Giza Eskubideen eta Enpresen Plana bezalako ekimenetan izandako lankidetzaren berri eman du, bai eta giza eskubideak babesteko eta defendatzeko ikuspegia indartzeko hainbat erakunderekin batera egindako lanaren berri ere. Uste du dimentsio horrek leku nagusia izan behar duela etorkizuneko urte anitzeko plangintzan eta Euskadik garatutako lankidetza-jardunean.

Halaber, azaldu du sail horrekin eta beste erakunde batzuekin batera lanean ari direla giza eskubideak babesteko eta defendatzeko ikuspegia indartzeko, eta lankidetza-bide berriak aztertzen ari direla, esparru hori lankidetza-jardunaren lehentasunezko ardatzetako bat izan dadin sendotzeko.

Bere hitzartzea amaitzeko, adierazi du horiek zirela mahaira ekarri nahi zituen elementu nagusiak, eta bertaratuei eman die hitza, azaldutako edukiei eta etorkizuneko partaidetza-prozesuan txertatu beharreko gaiei buruzko galdera-, iruzkin- eta eztabaida-txanda irekitzeko.

Iñaki Orubek urte anitzeko plangintza berria egiteko aurreikusitako partaidetza-ereduarekin lotutako hainbat gai planteatu ditu. Adierazi du, prozesua elkarlanean eta modu parte-hartzailean egingo dela azaldu bada ere, garrantzitsutzat jotzen duela partaidetza hori nola artikulatuko den eta horretarako zer espazio eta mekanismo aurreikusten diren zehaztea.

Halaber, plana onartzeko aurreikusitako egutegiari buruz galdetu du, 2027. urte inguruan izan daitekeela ulertuta. Ildo horretan, Koordinakundearen kezka adierazi du, urte amaierara arte dauden epeak nahikoak ez ote diren izango benetan parte-hartzailea izango den prozesu bat garatzeko. Uste du inplikatutako eragile guztien partaidetza eraginkorra bermatzeko beharrezkoa dela eztabaidarako, hausnarketarako eta proposamenak elkarrekin eraikitzeko behar adina denbora izatea.

Bestalde, adierazi du Koordinakundeak ez duela zalantzan jartzen nazioarteko hainbat esparrutan egindako posizionamendu-lanaren garrantzia, ezta lankidetzari eta garapenari buruzko Europako eta mundu-mailako eztabaidetan parte

hartzearen garrantzia ere. Uste du prozesu horiek guztiek azterketa- eta hausnarketa-elementu baliotsuak eskaintzen dituztela plangintza estrategikoa definitzeko.

Hala ere, erakundeen kezka adierazi du, nazioarteko ikuspegi eta agenda berri horiek euskal lankidetzaren ibilbide historikoarekin eta hamarkadetan zehar elkarrekin eraikitako nortasunarekin duten loturari dagokionez. Gogorarazi du identitate hori gizarte-mugimenduekin estuki lotutako lankidetzan, Hegoaldeko erakundeekin egindako lanean, ikuspegi feministan, giza eskubideen defentsan eta gizarte zibiletik bultzatutako gizarte-eraldaketako prozesuetan oinarritu dela.

Ildo horretan, orientazio estrategiko berriak euskal lankidetza tradizionalki ezaugarritu duten elementuekin nola uztartuko diren argitzeko beharra planteatu du; izan ere, nolabaiteko kezka dago, behar adinako eztabaidarik gabe ikuspegi- edo lehentasun-aldaketa bat gerta daitekeelako. Uste du partaidetza-prozesuak berak balio beharko duela gai horiei heltzeko eta ereduaren bilakaerari buruzko ulermen partekatua eraikitzeko.

Javier Cortések erantzun du aurkeztutako ikuspegi berriak ez direla bateraezinak euskal lankidetzaren ibilbidearekin eta, hain zuzen ere, ibilbide horrek aberastu ditzakeela. Hala ere, oinarrian egiten den lanarekiko eta lankidetza-eragileek metatutako esperientziarekiko loturari eustearen garrantzia azpimarratu du, eta nabarmendu du izaera globaleko eraldaketek lurraldeetatik, gizarte-erakundeetatik eta herritarren partaidetzatik eraikitako prozesuetan oinarritzen jarraitu behar dutela.

Azpimarratu du planteatzen ari diren ikuspegiek ez dutela lan hori ordezkatu edo baztertu nahi, baizik eta hartatik elikatu eta beste intzidentzia-esparru batzuetara proiektatu. Adierazi du lurralde-ikuspegia, giza eskubideen defentsa eta gizarte-eraldaketako prozesuak oinarrian egiten den jardunetik, erakundeek eta gizarte-mugimenduek lurraldeetan egiten duten lanetik sortzen eta indartzen direla. Haren iritziz, lan horrek eskalatzeko eta erabaki estrategikoak hartzen diren esparruetan ere eragiteko gaitasuna izan behar du.

Gaineratu du egungo testuinguruak tokiko lana eta nazio mailako nahiz nazioarteko esparruetan eragiteko gaitasuna uztartzea eskatzen duela. Uste du behetik bultzatutako eraldaketek goragoko erabaki-mailetara proiektatzeko gai izan behar dutela, egiturazko aldaketak sortzeko. Horregatik, nazioarteko eztabaidetan eta alde anitzeko esparruetan parte hartzearen garrantzia defendatu du, betiere giza garapenaren, giza eskubideen defentsaren eta gizarte-eraldaketaren ikuspegitik. Azpimarratu du oinarri hori gabe nazioarteko proiekzio- edo posizionamendu-estrategia orok zentzua galduko lukeela.

Partaidetza-prozesuari dagokionez, azaldu du asmoa dela urte honetan bertan dokumentu estrategikoa onartzeko bidean aurrera egitea, nahiz eta aurretik Administrazioaren beraren barruan kontraste- eta jabetze-lana egin beharko den.

Adierazi du dokumentua barne-mailan partekatu eta adostu beharko dela, bai Agentzian, bai Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin, planteatutako proposamenak bideragarriak direla eta beharrezko babes instituzionala dutela bermatzeko.

Adierazi du, barne-fase hori amaitu ondoren, aurreikuspenen arabera urritik aurrera, partaidetza-prozesua irekiko dela eragileekin. Azaldu du aurreikusitako metodologia partaidetza-tailerrak egitean oinarrituko dela, hasierako dokumentua lan-oinarri gisa erabiliz ekarpenak, azterketak, proposamenak eta abar jasotzeko. Aztertuko diren gaien artean egongo dira, hain zuzen ere, ikuspegi estrategiko berrien eta euskal lankidetzaren identitatearen arteko harremana eta eragile desberdinen zeregina, bai eta etorkizuneko lankidetza-politikaren lehentasunak zehaztea ere.

Gaineratu du tailerrak urrian eta azaroan egingo direla, edukietan sakontzea ahalbidetuko duen formatu batean, epeak gehiegi luzatu gabe. Asmoa da lan-bilkura trinkoak eta bideratuak antolatzea, deitutako eragileen ikuspegi desberdinak jasotzeko eta proposamen partekatu bat eraikitzeko aukera eman dezaten.

Azkenik, adierazi du parte hartzeko epeak barneko izapidetze- eta onarpen-prozedurekin bateratu beharko direla. Adierazi du hurrengo Kontseiluan abiapuntuko dokumentua eta aurreikusitako egutegiaren eta partaidetza-mekanismoen proposamen zehatzagoa aurkeztuko direla, eragile guztiek prozesuari eta haren faseei buruzko ikuspegi argia izan dezaten.

Natxo Rodríguezek, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariak, Iñaki Orubek aurretik planteatutako hausnarketekin bat egin du, eta azpimarratu du garrantzi estrategiko handiko dokumentu bati heltzen ari zaiola; dokumentu horrek bertan dauden eragile guztiei eta, bereziki, euskal lankidetza-sistemaren parte diren erakunde guztiei interpelatzen die.

Bizkaiko Foru Aldundiak prozesuan aktiboki parte hartzeko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko gaitasun handiagoa izango duen euskal lankidetza eraikitzen laguntzeko prest dagoela adierazi du. Plangintza berria egiteko prozesuaren epeei eta erritmoei arreta berezia jartzeko eskatu du, parte-hartze eraginkorra eta kalitatezkoa bermatzeko.

Ildo horretan, gogorarazi du foru-erakundeak legegintzaldiaren azken fasean daudela, eta etapa horrek lan-karga handiagoa eta agenda bereziki konplexuak ekarri ohi dituela; egoera horrek urteko azken hilabeteetan prozesu trinkoetan parte hartzea zaildu lezake. Horregatik, beharrezkotzat jo du egutegiak eragile instituzionalek parte hartzeko dituzten benetako aukerekin behar bezala bateratzea.

Dokumentuaren eta hartatik eratortzen diren orientazio estrategikoen garrantziak behar den denbora eskaintzea justifikatzen duela azpimarratu du, parte-hartze prozesu emankorra eta adostasun zabalak sortzeko gai izango dena bermatzeko. Haren iritziz, azken emaitzaren kalitatea, neurri handi batean, alderdi

metodologikoak eta antolaketari lotutakoak behar bezala zaintzearen mende egongo da.

Halaber, euskal erakundeek lankidetza deszentralizatuaren eta maila anitzeko gobernantzaren esparruan betetzen duten zeregina nabarmendu du, eta foru-aldundiek euskal lankidetza-sistemari historikoki egindako ekarpena azpimarratu du. Gaineratu du aitortza hori tokiko administrazioetara, Euskal Fondora eta, hiriburuetatik harago, nazioarteko lankidetzako ekimen eta programetan aktiboki parte hartzen duten udal ugarietara ere zabaldu behar dela.

Horregatik, garrantzitsutzat jo du plangintza estrategiko berria egiteko prozesuak erakunde horien guztien partaidetza egokia bermatzea, euskal lankidetzaren etorkizuneko lehentasunak zehazteko duten esperientzia eta ekarpen-gaitasuna aitortuz.

Jesús Ochoak bat egin du aurreko esku-hartzeetan egindako hausnarketekin, eta lankidetzaren eta garapenaren arloko plangintza estrategikoa egiteko prozesuetan metatutako esperientziaren garrantzia azpimarratu du. Adierazi du aurreko aldietan ere tresna estrategikoak egiteko hasieran aurreikusitakoa baino denbora gehiago behar izan zela, partaidetza-prozesuetan sakontzeko eta inplikatutako eragileen inplikazio eta jabetze handiagoa bermatzeko borondateagatik.

Gogorarazi du esperientziak erakusten duela prozesurik sendoenak modu partekatuan eraikitzen direnak eta eragile garrantzitsu guztien ekarpenak txertatzeko aukera ematen dutenak direla. Ildo horretan, uste du epeak luzatzea ulergarria izan daitekeela partaidetza indartzeko eta adostasun-maila handiagoak lortzeko beharrari erantzuten dionean.

Halaber, agerian utzi du mota horretako dokumentuak egiteak eragile ugariren arteko hitzartze- eta adostasun-ahalegin handia eskatzen duela beti; beraz, beharrezkoa da aurreikusitako denboren eta inplikatutako erakunde eta instituzioek parte hartzeko duten benetako gaitasunaren arteko oreka aurkitzea.

Horregatik, prozesuari heltzean, azkar onartzeari baino azken emaitzaren kalitateari lehentasuna emateko borondatea izateko eskatu du. Azkenik, adierazi du, dokumentuaren izaera estrategikoa eta euskal lankidetzaren etorkizuneko orientazioan izango duen eragina kontuan hartuta, bereziki garrantzitsua dela lana zorroztasunez egitea, ondoriozko estrategiak inplikatutako eragile guztien babesa izan dezan.

Nerea Uriartek galdetu du ea plangintza Eusko Legebiltzarrean aurkeztea aurreikusten den. Javier Cortések baiezko erantzuna eman du, eta azaldu du egokiagotzat jotzen dela proposamena Mahaiaren esparruan kontrastatu ondoren egitea. Adierazi du helburua dela Eusko Legebiltzarrera aurrez landutako eta aldez aurreko hausnarketa- eta partaidetza-prozesu batean oinarritutako proposamen batekin joatea, behar besteko heldutasun tekniko eta politikoarekin aurkeztu ahal izateko. Funtsezkotzat jo du elkarrizketa instituzionalerako espazio hori izatea,

garapenerako lankidetza euskal gizarte osoak partekatutako eta babestutako politika publiko gisa ulertu behar baita.

Halaber, azpimarratu du plangintza berriaren helburuetako bat haren jabetze sozial eta instituzionala indartzea dela; horregatik, ezinbestekotzat jo du Eusko Legebiltzarrak eztabaidan parte hartzea eta proposamenaren elementu nagusiak ezagutzea.

Ander Caballerok hitza hartu du hurrengo puntua aurkezteko, bilkurari jarraipena emanez.

5. FORU-ALDUNDIEN ETA ELANKIDETZAREN 2026KO PLANEI, AURREKONTUEI ETA DEIALDIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Lehendakariak Natxo Rodríguez Puertasi eman dio hitza, eta hark erakundeak 2026ko ekitaldirako aurreikusitako jarduera-ildo nagusiak aurkeztu ditu, bai eta nazioarteko lankidetzara bideratutako deialdiak eta baliabideak ere.

Natxo Rodríguezek Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Kohesioko Zuzendaritza Nagusiaren 2026ko ekitaldirako lankidetza-aurrekontua aurkeztu du. Adierazi du Zuzendaritzak guztira 15.627.000 euroko aurrekontua duela, eta kudeatzen dituen politiken barruan lankidetzak duen pisua azpimarratu du; izan ere, guztira 10.009.000 euro bideratzen dira esparru horri lotutako transferentzietara.

Dirulaguntza izendunei dagokienez, jakinarazi du 392.000 euro bideratzen direla erreferentziazko hainbat erakunde eta programatara. Horien artean daude Euskal Fondoa (130.000 euro), Euskadiko GGKEen Koordinakundea (60.000 euro), RAST (22.000 euro), Festival Invisible (50.000 euro), Salvamento Marítimo Humanitario (50.000 euro) eta UNRWA Euskadi (80.000 euro).

Halaber, Bizkaia Koopera programa aurkeztu du. Programa horren bidez, Aldundiak lurraldeko eragile berriek nazioarteko lankidetzako ekimenetan parte hartzea sustatzen du. Esparru horretan, Bizkaiko erreferentziazko erakundeek parte hartzen dute, garapenerako lankidetzarekin konprometitutako oinarri soziala eta sektoriala zabaltzeko helburuarekin.

2026rako aurreikusitako ekimen berriei dagokienez, jakinarazi du Bizkaia Larrialdietarako Funtsa sortzeko lan egin dela, hainbat erakunderen arteko tresna partekatu gisa pentsatua, krisi humanitarioei erantzuteko gaitasuna hobetzeko. Hala ere, azaldu du funtsa abian jartzea aldi baterako atzeratu dela, haren egituraketarekin eta kudeaketarekin lotutako zailtasun tekniko eta administratiboak direla eta. Ekimena etenda geratzen dela adierazi du, etorkizunean berriro ekiteari uko egin gabe.

Erakundeen arteko bi lankidetza-ildo berri ere azpimarratu ditu. Alde batetik, ‘Ura eta Klima Aldaketa’ Lantaldearekin hitzarmen bat onartuko dela laster; lantalde hori hainbat erakunde espezializatuk osatzen dute, eta Afrikako eta Latinoamerikako herrialdeetan uraren kudeaketa jasangarriarekin eta klima-aldaketara

egokitzearekin lotutako urte anitzeko jarduerak bultzatzea du helburu. Bestetik, jakinarazi du hiru foru-aldundien eta UNRWA Euskadiren arteko hitzarmen bateratua formalizatu dela, agentzia horrek egiten duen lanaren bidez Palestinako biztanleei ematen zaien babesa indartzeko.

Jarraian, azaldu du finantzaketa-tresna nagusia 2026ko Lankidetzaren Dekretua dela oraindik ere, eta 8.650.000 euro bideratzen direla horretara. Zenbateko horretatik, 5.850.000 euro 2026ko deialdi berriari dagozkio, eta 2.800.000 euro 2024an eta 2025ean onartutako urte anitzeko konpromisoei erantzuteko gordetzen dira.

2026ko deialdiaren zuzkidura honela banatzen dela zehaztu du:

- II. kapitulua. Garapenerako lankidetza: 3.000.000 euro.
- III. kapitulua. Sentsibilizazioa eta Eraldaketa Sozialerako Hezkuntza: 630.000 euro.
- IV. kapitulua. Pobretutako herrialdeetako eta Bizkaiko ekintza puntualak: 240.000 euro, modalitate bakoitzerako 120.000 euro.
- V. kapitulua. Genero-ekitaterako antolaketa-aldaketa: 80.000 euro.
- VI. kapitulua. Larrialdietarako laguntzak eta ekintza humanitarioa: 400.000 euro.
- VII. kapitulua. 2026-2028 Esparru Estrategikoari lotutako prozesuak: 1.500.000 euro.

Azpimarratu du Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontu-ahaleginak nazioarteko lankidetzaren aldeko apustu esanguratsuari eusten diola, eta garapen-proiektuei emandako babesa, eraldaketa sozialerako hezkuntza, ekintza humanitarioa eta lankidetza-politiken eragina eta jasangarritasuna indartzera bideratutako urte anitzeko prozesu estrategikoen sustapena uztartzen dituela.

Azaltzen jarraitu du, Bizkaia Larrialdietarako Funtsa abian jartzea atzeratu denez, Aldundiak tresna horretarako hasieran aurreikusitako baliabideak berriz aktibatzea aztertuko duela, eta, aurreikuspenen arabera, larrialdietarako laguntzetara eta ekintza humanitariora bideratutako partidak indartuko dituela.

Jarraian, Lankidetzaren Dekretuaren VII. kapituluaren garrantzia azpimarratu du, Esparru Estrategikoari (2026-2028) lotutako prozesuei buruzkoa. Gogorarazi du lerro hori aurreko deialdian jarri zela abian, Foru Aldundiak garatutako hausnarketa estrategikoa egiteko prozesu baten ondoren, eta lehentasunezkotzat zehaztutako eremua lankidetza feminista eta gizarte-eraldaketarako agenda feminista izan zela. Ildo horretara 1.500.000 euro bideratzen dira 2026ko deialdian, gehienez hiru urteko iraupena duten urte anitzeko prozesuetarako.

Halaber, argitu du Dekretua urtearen hasieran argitaratu zela, eta VII. kapituluari dagozkion proposamenak aurkezteko epea hasieran bereizita ireki zela. Deialdi hori

apirilean ebatzi zen. Ondoren, gainerako kapituluei dagozkien eskaerak aurkezteko epea ireki zen, eta une hartan prozedura balorazioaren azken fasean zegoen. Jakinarazi du Balorazio Batzordeak laster bilera bat egiteko asmoa duela, eta laguntzen ebazpena, aurreikuspenen arabera, uztailaren amaiera eta abuztuaren hasiera bitartean jakinaraziko dela.

Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetza teknikoaren arloan bultzatutako beste jarduera batzuk aipatu ditu, besteak beste, Imbaburako Prefekturarekin (Ekuador) egindako lankidetza eta Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzarekin batera garatutako hainbat ekimen. Amaitzeko, adierazi du, jarduera osagarri horiez gain, aurkeztutako elementuak direla 2026rako lankidetzaren aurrekontuaren eta jarduera-planaren berritasun nagusiak.

Jarraian, Ana Priede Gipuzkoako Foru Aldundiko Nazioarteko Lankidetzako zuzendari nagusiak hartu du hitza. Foru Aldundiak ekitaldi honetarako dituen lehentasun estrategikoen eta aurrekontu-lehentasunen berri eman du; adierazi du guztizko zuzkidura 6.225.329 eurokoa dela, hau da, 831.642 euroko igoera 2025eko aurrekontuarekin alderatuta, gutxi gorabehera % 12ko hazkundearen baliokidea.

Azaldu du dirulaguntzen deialdia dela foru-lankidetzaren finantzaketa-tresna nagusia, eta aurrekontu osoaren % 80 inguru hartzen duela. 2026rako 4.768.402 euroko zuzkidura du, hau da, 2025eko deialdiarekin alderatuta 411.537 euroko igoera, % 8,3 inguruko hazkundearen baliokidea.

Aurrekontu-igoeraz harago, azken urtean deialdiaren oinarri arautzaileak berrikusteko egindako lana azpimarratu du. Adierazi du prozesu hori Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin eta Gipuzkoako hainbat lankidetza-erakunderekin elkarlanean garatu dela, finantzaketa-tresnak erakundeek eta haien tokiko bazkideek gaur egun lan egiten duten benetako baldintzetara egokitzeko helburuarekin.

Azaldu du esku-hartzeen testuinguruak gero eta konplexuagoak direla, herrialde ugaritako gatazkek, atzerakada demokratikoek, krisi humanitarioek eta ezegonkortasun instituzionalak markatuta, eta horrek beharrezko egiten zuela deialdiaren zenbait alderdi berrikustea, proiektuen gauzatzea errazteko eta erakundeek antzemandako beharrei hobeto erantzuteko.

Sartutako aldaketa nagusien artean, A lerroko proiektuen gehieneko finantzaketa handitu dela nabarmendu du: proiektu bakoitzeko 100.000 eurotik 120.000 eurora igaro da, inflazioaren ondoriozko kostuen igoera orokorrari eta herrialde askotan dauden jarduteko zailtasunei erantzuteko. Halaber, D lerroan proiektu bakoitzeko gehieneko finantzaketa 100.000 eurotik 120.000 eurora igo da.

Halaber, jakinarazi du finantzatu daitezkeen zeharkako kostuen ehunekoa % 12ra igo dela, irizpide hori Bizkaiko Foru Aldundiak hartutakoarekin lerrokatzeko eta euskal administrazio publikoen artean homogeneotasun handiagoa sustatzeko.

Araudiaren arloan, adierazi du berariazko xedapen bat txertatu dela gatazka armatuek, atzerakada demokratikoek edo gizarte-erakundeen jarduerarako murrizketek ezaugarritutako zenbait testuingurutan dauden zailtasunak aitortzeko. Helburua da administrazio-malgutasun handiagoa izatea eta proiektuak garatzen diren herrialdeetako errealitateetara hobeto egokitzea.

Azaldu du, halaber, proiektuen funtsezko aldaketei buruzko araudia aldatu dela, eta aldaketa horiek Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaizkiola gauzatze-aldia amaitu baino gutxienez hogeita hamar egun lehenago. Horren bidez, segurtasun juridiko handiagoa eman eta proiektuak garatzean sortzen diren gorabeheren kudeaketa hobetu nahi da.

Balorazio-irizpideei dagokienez, jakinarazi du sektoreko erakundeekin batera landutako hainbat hobekuntza txertatu direla. Horien artean, giza eskubideen arloan lehenetsitako helburuak zabaltzea nabarmendu du, eta berariaz sartu dira arrazoi ekonomiko, erlijioso, politiko edo kulturalengatik nahiz hondamendi naturalengatik jazarritako edo lekualdatutako pertsonak.

Halaber, adierazi du ekintza humanitarioko eta larrialdietako lerroetan proiektuen jarraitutasunari buruzko irizpidea ezabatu dela, mota horretako esku-hartzeetarako desegokitzat jo delako. Aldi berean, proposamenen kalitate teknikoarekin eta eraginarekin lotutako balorazio-irizpide berri bat sortu da, eta diagnostikoaren eta helburuen arteko koherentzia, aurreikusitako jardueren egokitasuna eta proiektuaren sendotasun orokorra bezalako alderdiak aztertzen dira. N

Priedek, halaber, ekonomia sozial eta solidarioarekin lotutako irizpideen barruan ekonomia feministaren ikuspegia berariaz txertatu izana nabarmendu du. Azaldu du deialdian honako alderdi hauek baloratzen direla orain: zaintzak aitortzea eta birbanatzea, lan-baldintza duinak eta bidezkoak, diskriminaziorik gabeko harremanak, erantzunkidetasun soziala eta komunitarioa eta genero-desberdintasunak murrizten laguntzea. Adierazi du aldaketa horrek ekonomia sozial eta solidarioaren eta ekonomia feministaren planteamenduen artean dagoen harreman estua argiago ikusarazteko borondateari erantzuten diola.

Azkenik, laburbildu du aldaketa guztien helburua dela deialdiak proiektuek aurre egin behar dieten kostuen igoerara egokitzea, beste administrazio publiko batzuekiko irizpideak harmonizatzea, esku-hartzeen kalitate teknikoa hobetzea, giza eskubideen eta ekonomia feministaren ikuspegiak indartzea eta segurtasun juridiko handiagoa ematea bai euskal erakundeei, bai esku-hartzeak egiten diren herrialdeetako erakunde bazkideei.

Jarraian, Javier Cortések hartu du hitza eLankidetzak kudeatutako deialdiak aurkezteko.

Ekintza Humanitarioko Deialdiari dagokionez, jakinarazi du martxoaren 13an erakundeei zuzendutako aurkezpen-saio bat egin zela, eta deialdiaren argitalpen ofiziala martxoaren 30ean egin zela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ekintza Humanitarioko Proiektuen lerroari (PRE) dagokionez, adierazi du 2.300.000 euroko zuzkidura duela eta Afrikan sei ekimen finantzatzeko berariazko erreserba bati eusten diola. Azaldu du deialdi irekia eta iraunkorra dela, ondoz ondoko norgehiagoka-erregimenean, argitaratu eta hurrengo eguneko 09:00etan ireki zena eta eskuragarri dauden funtsak agortu arte indarrean egongo dena. Jakinarazi du orain arte 28 eskaera jaso direla eta horietatik 11 proiektu onartu direla, horietako sei Afrikan. Gaineratu du gaur egun 120.692 euroko gerakina dagoela eta beste deialdi batzuetatik etor daitezkeen soberakinen zain daudela; horrek beste proiektu bat finantzatzea ahalbidetu lezake.

Ekintza Humanitarioko Estrategien lerroari (EHE) dagokionez, adierazi du 3.200.000 euroko aurrekontu-zuzkidura duela eta ekimen bat Afrikara bideratzeko lehentasuna aurreikusten duela. Norgehiagoka-erregimeneko deialdia da; epea apirilaren 30ean amaitu zen, eta dirulaguntzak emateko ebazpena irailaren 1ean argitaratzea aurreikusten da.

Jarraian, Garapenerako Lankidetzako Proiektuen Deialdia (PRO) azaldu du. Azaldu du maiatzaren 21ean argitaratu zela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta eskaerak aurkezteko epea ekainaren 22an amaitu zela. Halaber, maiatzaren 22an informazio-saioak egin ziren gaztelaniaz eta euskaraz, erakundeei deialdia osatzen duten hiru kapituluak azaltzeko.

Azpimarratu du deialdi horrek duela eLankidetzak kudeatzen dituen guztien artean zuzkidura ekonomikorik handiena, eta horretara jotzen duela Euskadiko erakundeen edo Euskadin ordezkaritza iraunkorra duten erakundeen kopururik handienak.

Nabarmendu du 34/2007 Dekretua indargabetzeak administrazioa sinplifikatzera bideratutako hobekuntza esanguratsuak sartzea ahalbidetu duela. Horien artean, honako hauek aipatu ditu:

- Eskaera egiteko unean baterako finantzaketa egiaztatzeko betebeharra kentzea.
- Eskatutako dokumentazio ekonomikoa sinplifikatzea, proformak aurkezteko betebeharra mugatuz eta soldata-ziurtagiriak aurkezteko betebeharra ezabatuz.
- Funtsezko aldaketen araubidea malgutzea; kasu jakin batzuetan, aldaketa horiek automatikoak izango dira, eta tokiko erakunde bazkideak ere aldatu ahal izango dira berariazko ebazpenik behar izan gabe.
- Ebaluazio-gastuei eta gastuak egozteko datei buruzko irizpideak zabaltzea.

Deialdiak 32 milioi euroko zuzkidura globala du, honela banatuta:

- I. kapitulua (K1). Garapenerako lankidetzako proiektuak: 26.000.000 euro.
- II. kapitulua (K2). Ekoizpen-garapeneko, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuak: 900.000 euro.

- III. kapitulua (K3). Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzako proiektuak: 5.100.000 euro.

Jakinarazi du eLankidetzako talde teknikoa une honetan jasotako eskaerak baloratzen ari dela, eta ebazpena azaroan argitaratzea aurreikusten dela.

Aurreko dekretua indargabetu ondoren deialdian sartutako aldaketei dagokienez, bereziki honako hauek nabarmendu ditu:

- Afrikara bideratutako aurrekontu-erreserba guztizkoaren % 25era igotzea, hau da, 8.000.000 eurora; lehen, berriz, % 20 bideratzen zen berariaz Saharaz hegoaldeko Afrikara.
- Emakumeak ahalduntzeko proiektuetarako erreserba handitzea; aurrekontuaren % 10etik % 20ra igo da, 6.400.000 eurora iritsiz.

Halaber, adierazi du proiektu bakoitzeko finantza daitezkeen gehieneko zenbatekoak aldatu direla:

- K1 eta K2: gehienez 500.000 euro proiektu bakoitzeko (lehen 600.000 euro).
- K3: gehienez 400.000 euro proiektu bakoitzeko (lehen 600.000 euro).

Jarraian, Garapenerako Lankidetza Programen Deialdiaren (PGM) berri eman du.

2026ko apirilaren 24an argitaratutako identifikazio-fasean, guztizko zuzkidura 90.000 eurokoa da, gehienez 30.000 euro ekimen bakoitzeko, eta erakunde bakoitzak eskaera bakarra aurkez dezake. Ebazpena 2026ko irailaren 1erako aurreikusten da.

Gauzatze-faseari dagokionez, hori ere 2026ko apirilaren 24an argitaratu zen, eta deialdiak 1.800.000 euroko zuzkidura du. Programa bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 900.000 eurokoa da, eta, kasu honetan ere, eskaera bakarra aurkez daiteke erakunde bakoitzeko. Era berean, ebazpena 2026ko irailaren 1erako aurreikusten da.

Jarraian, Genero Ekitatearen aldeko Antolaketa Aldaketaren (GBA) deialdia aipatu du. Azaldu du hainbat modalitate aurreikusten dituela, erakunde bakoitza dagoen fasearen arabera: diagnostikoak eta planak; planak soilik; ezarpena eta ebaluazioa; edo ebaluazioa soilik. Adierazi du deialdia oraindik ez dela argitaratu eta irailaren hasieran irekitzea aurreikusten dela. 2026rako aurreikusitako zuzkidura 217.000 eurokoa da.

Lankidetza eta Elkartasunerako Ignacio Ellacuría Sariari (SAR) dagokionez, azaldu du haren helburua dela berdintasunari, herrien arteko justiziari, pobrezia gainditzeari eta gizarte-sentsibilizazioari egindako ekarpenagatik nabarmendu diren erakunde, kolektibo, pertsona eta ekimenen lana publikoki aitortzea. Deialdia argitaratzeko data zehatzik ez dago oraindik, baina udazkenean argitaratzea aurreikusten da. Sariaren zuzkidura ekonomikoa 15.500 eurokoa izango da.

Halaber, gogorarazi du egoitza soziala edo ordezkaritza iraunkorra Euskadin duten lankidetza-erakundeek aitorpen hori merezi dutela uste duten beste erakunde, kolektibo edo pertsona batzuen hautagaitzak aurkez ditzaketela, eta bertaratutako erakundeak parte hartzera animatu ditu, dagokion epea irekitzen denean.

Azkenik, jakinarazi du 2026an ez direla Garapenerako Lankidetzan Espezializatzeko Bekak (BEK) deituko. Azaldu du erabaki horren arrazoia dela beken egutegia aurrekontu-ekitaldira egokitzeko beharra, 2025eko deialdiko onuradunak 2026ko urtarrilean hasi baitziren. Ondorioz, 2027ko hasieran deialdi berri bat argitaratzea aurreikusten da, laguntza ematen den urtea prestakuntza-jarduera benetan garatzen den aldiarekin bat etor dadin.

Azalpenak amaituta, galderarik edo oharrik egon ez denez, hurrengo puntua aztertzeari ekin zaio.

6. EUSKAL LANKIDETZAREN JARDUN-EREMUETAKO ESPAZIO ZIBIKOAREN ITXIERARI BURUZKO BALORAZIOA

Lehendakariak Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Irene Molerori eman dio hitza. Euskal lankidetza-erakundeek lan egiten duten herrialde askotan espazio demokratikoek izan duten narriaduraren eta gizarte zibilaren jarduerari gero eta murrizketa gehiago ezartzearen inguruko kezka adierazi du. Giza eskubideen defendatzaileak babesteko mekanismoak indartzeko eta tokiko gizarte-erakundeei ematen zaien babes instituzionala sendotzeko beharra azpimarratu du.

Molerok jakinarazi du Euskadiko GGKEen Koordinakundearen barruan Erdialdeko Amerikari buruzko berariazko lantalde bat sortu dela, eskualdeko hainbat herrialdetan gertatzen ari den egoeraren narriadura larriari erantzuteko. Adierazi du kezka handiena sortzen duten elementuetako bat espazio zibikoaren itxiera progresiboa eta gero eta murrizketa handiagoak direla, bai gizarte zibileko erakundeei, bai nazioarteko lankidetza-eragileei eragiten dietenak; adibide bereziki esanguratsu gisa, El Salvadorreko atzerriko erakundeen egoera aipatu du.

Azaldu du lantalde hori euskal erakundeek eskualdean eguneroko lanean aurkitzen dituzten zailtasunei eta lankidetzan aritzen diren tokiko erakunde bazkideei eragiten dieten erronkei elkarrekin aurre egiteko helburuarekin sortu dela. Testuinguru horretan, lankidetza-lanaren eta giza eskubideen defentsaren jarraitutasuna bermatzen lagunduko duten laguntza instituzionaleko mekanismoak, baita izaera diplomatikokoak ere, izatearen garrantzia azpimarratu du.

Halaber, adierazi du hausnarketarako eta koordinaziorako espazio horretatik lankidetza-tresnak eskualdeko errealitate berrietara egokitzeko beharra planteatu dela, prozedura arinagoak eta malguagoak sustatuz, oso azkar aldatzen diren eta erakundeen jarduerarako gero eta muga gehiago dituzten testuinguruei behar bezala erantzun ahal izateko.

Era berean, giza eskubideen defentsarako nazioz gaindiko sareak eta gizarte zibileko erakundeen arteko elkarrekiko laguntza-sareak indartzen jarraitzearen garrantzia

azpimarratu du, aliantza horiek funtsezkoak baitira partaidetza-espazioen ahultzeari eta gizarte-eragileei eragiten dieten murrizketei aurre egiteko.

Azpimarratu du erakundeen kezka nagusia pertsonen babesa eta giza eskubideen defentsa lankidetza-jardunaren erdigunean jartzea dela oraindik ere, euskal lankidetza-eredua historikoki ezaugarritu duten printzipioei eutsiz.

Eraldaketa horiek eta haien ondorioak aztertzeko, azaldu du Koordinakundea HEGOArekin harremanetan jarri zela ikerketa-lan bat bultzatzeko, testuinguru horiek bai tokiko erakundeetan, bai euskal lankidetza-ereduan bertan izaten ari diren eraginari buruzko hurbilketa teorikoa eta enpirikoa uztartzeko. Helburua egungo erronkak identifikatzea zen, bai eta gero eta konplexuagoak diren eszenatokietan lau hamarkadatik gorako lankidetza-esperientzia metatuak eskain ditzakeen ekarpenak eta balio erantsia identifikatzea ere.

ECOPERreko aholkulari elkartu Borja Santamariari eman dio hitza, eta hark ‘Lankidetza deszentralizatua giza eskubideak babesteko sare gisa’ izeneko ponentzia aurkeztu du. Azaldu du aurkeztutako azterlanak munduko hainbat eskualdetan espazio zibikoa pixkanaka narriatzearen eta egoera horrek garapenerako lankidetzan eta ekintza humanitarioan dituen ondorioen inguruko kezka partekatu bati erantzuten diola.

Adierazi du, fenomenoari heltzeko dauden ikuspegi ugarien artean, ikerketa berariaz zentratu dela lankidetza deszentralizatuaren ezaugarri bereizgarriak zein diren aztertzean, bai eta eredu horrek zer neurritan duen gaitasun berezia espazio zibikoa ixteko prozesuei, multilateralismoaren ahultzeari edo nazioarteko babeserako eta giza eskubideen defentsarako zenbait mekanismoren legitimitate-galera gero eta handiagoari erantzuteko ere.

Azaldu du azterlanaren helburu nagusia izan dela aztertzea lankidetza deszentralizatuak zenbateraino dituen giza eskubideak defendatzeko, pertsona defendatzaileei laguntzeko eta Hego Globaleko gizarte zibileko erakundeak indartzeko gaitasun espezifikoak, bereziki askatasun publikoen eta gizarte-partaidetzaren gaineko murrizketak gero eta handiagoak diren testuinguruetan.

Erabilitako metodologiari dagokionez, nabarmendu du diagnostiko sendo bat eraikitzen saiatu direla, askotariko iturri osagarrietatik abiatuta. Horien artean, Nazio Batuen sistemako organismoek egindako txostenak aipatu ditu (Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak, Idazkaritza Nagusiak eta errelatore berezien hainbat mekanismok egindakoak). Halaber, azterlanak bibliografia espezializatuaren berrikuspena, dokumentu-analisia eta lankidetzarekin eta giza eskubideen defentsarekin lotutako pertsona adituen eta eragileen testigantzak jasotzen ditu.

Aurkezpenean, Borja Santamariak bereziki azpimarratu du “presentziaren bidezko babesa” kontzeptua, nazioarteko babesaren eta giza eskubideen esparruetan oso erabilia. Kolonbia bezalako herrialdeetan izandako lan-esperientziatik abiatuta,

azaldu du nazioarteko erakundeek eta lankidetza-erakundeek lurraldeetan etengabe presentzia izateak berez babes-efektua sortzen duela mehatxu- edo zaurgarritasun-egoerak jasaten dituzten pertsona eta kolektiboentzat.

Ildo horretan, adierazi du ikerketan zehar kontsultatutako eragile ugarik nabarmentzen dutela zein garrantzitsua den giza eskubideen defendatzaile diren erakunde eta pertsonentzat elkartasuneko nazioarteko sareen laguntza, aitortza eta babesa sentitzea. Uste du aldi baterako harrera-programak, bisita instituzionalak, topaguneak eta laguntza-ekimenak izateak isolamendu-sentsazioa murrizten laguntzen duela eta arrisku-testuinguruetan lan egiten dutenen legitimitatea eta jarduteko gaitasuna indartzen dituela.

Halaber, azpimarratu du programa horiek babes fisikoa edo instituzionala ez ezik, atseden hartzeko eta laguntza psikosoziala jasotzeko espazioak ere eskaintzen dituztela; alderdi horiek bereziki garrantzitsuak dira presio-, mehatxu- edo kriminalizazio-egoera luzeak jasaten dituzten pertsonentzat, bai eta haien familientzat ere.

Azterlanaren ondorio nagusi gisa, adierazi du ikerketak lankidetza deszentralizatuak beste lankidetza-eredu batzuen aldean duen balio bereizgarria berresten duela. Adierazi duenez, eredu horrek gaitasun berezia du, besteak beste, gizarte zibilaren nazioz gaindiko sareei eusteko, aktibismo sozialeko prozesuak indartzeko eta Hego Globaleko lurralde-eragileekin zuzeneko loturak mantentzeko.

Azterlanaren aurkikuntza nagusien artean, honako hauek nabarmendu ditu:

- Lankidetza deszentralizatuak gizarte zibileko erakundeekin eta gizarte-mugimenduekin duen lotura estua.
- Testuinguru hauskor edo murriztaileetan jarduteko duen gaitasun handiagoa.
- Giza eskubideen eta pertsona defendatzaileen babesean metatutako espezializazioa.
- Lankidetza feministaren ikuspegien garrantzia.
- Epe luzerako konfiantzazko eta laguntzazko harremanak eraikitzeko gaitasuna.
- Nazioz gaindiko elkartasun- eta intzidentzia-sareak indartzeko egiten duen ekarpena.

Amaitzeko, adierazi du, eskubideen atzerakadak eta espazio demokratikoen itxiera progresiboak markatutako nazioarteko testuinguruan, lankidetza deszentralizatuak berariazko indarguneak dituela, eta horiek zaintzea eta indartzea komeni dela, bai gizarte zibilarekiko hurbiltasunagatik, bai epe luzeko ikuspegitik gizarte-eraldaketako eta giza eskubideen defentsako prozesuei eusteko duen gaitasunagatik. Nazio Batuen sistemarako laguntza eta sostengua ere bada, eta,

azken batean, babesa, legitimitatea eta artikulazioa uztartzen dituen ereduaz ari gara.

Azalpenaren ondoren, hausnarketa- eta ekarpen-trukea izan da. Juanma Balerdik hitza hartu du espazio zibikoen itxieraren inguruan planteatutako hausnarketak osatzeko, eta adierazi du, gizarte zibileko erakundeei eragiten dieten murrizketez gain, lankidetza-jarduerak garatzen diren herrialde askotan espazio instituzionalak ere pixkanaka ixten ari direla.

Azaldu du herrialde batzuetan ikusten diren boterea kontzentratzeko eta birzentralizatzeko prozesuak tokiko eta eskualdeko gobernuen zeregina nabarmen mugatzen ari direla, udal-agintarien jarduteko tartea murriztuz eta, bereziki, lankidetza deszentralizatuaren modalitateak zailduz. Adierazi du errealitate horrek zuzenean eragiten diola Euskal Fondoa bezalako erakundeen lanari, haren jarduna tokiko erakundeen arteko lankidetzan oinarritzen baita, hain zuzen ere.

Adibide gisa, Nikaraguaren kasua aipatu du, non azken urteetako bilakaera politikoak lankidetza-espazioak ia erabat ixtea eragin duen. Adierazi du zailtasunek ez dietela soilik gizarte-erakundeei eragiten, baita udal-erakundeei beraiei ere; hainbesteraino, non gaur egun oso zaila baita lankidetza-jarduerak garatzea, inplikatutako tokiko agintarien orientazio politikoa edozein dela ere. Egoera horren aurrean, beharrezkotzat jo du tokiko agintariekin, komunitateekin eta udalerriekin zuzeneko lankidetza are gehiago indartzea, testuinguru bereziki konplexuak bizi dituzten lurraldeekiko konpromisoari eutsiz. Halaber, gobernu-maila desberdinen arteko erakundearteko koordinazioa indartzearen garrantzia azpimarratu du, bereziki murrizketa demokratikoak gero eta handiagoak diren eszenatokietan.

Ildo horretan, euskal erakundeetatik jasotako babesa eta administrazioen artean dagoen maila anitzeko lankidetza nabarmendu ditu. Berariaz azpimarratu du Eusko Jaurlaritzak eta erakundeetako eragile desberdinek Nikaraguan sortutako zailtasunak kudeatzeko emandako laguntza, eta adierazi du erakundeen arteko lankidetza hori funtsezkoa izan dela egoera konplexuei aurre egiteko eta jarduera-estrategiak birdefinitzeko.

Adierazi du esperientzia horiek ez dutela Euskal Fondoa eraman eragindako lurraldeak uztera; aitzitik, boterea kontzentratzeko prozesu horien ondorioak jasaten dituzten komunitateei eta tokiko agintariei laguntzen jarraitzeko ustea indartu dute.

Azaldu du hausnarketa horrek tokiko gobernuen eta komunitate-lidergoen zeregina indartzera bideratutako ekimen berriak bultzatzea ekarri duela, bereziki emakumeen ahalduntze politikoa eta tokiko partaidetza indartzea bezalako esparruetan. Adibide gisa, Erdialdeko Amerikan emakume hautetsiei laguntzera eta lidergo- eta partaidetza politikorako espazioak indartzera bideratutako hainbat jarduera aipatu ditu.

Azkenik, ondorioztatu du espazio zibikoen defentsak eta gizarte zibilaren babesak tokiko erakunde demokratikoak indartzearen aldeko apustu irmoa ere izan behar dutela lagun. Haren iritziz, bai gizarte-erakundeek, bai udal-agintariek euskal lankidetza deszentralizatuaren erantzunaren parte izan behar dute.

Mary Tere Guzmánek, bestalde, adierazi du espazio zibikoaren itxierarekin eta giza eskubideen defentsarekin lotutako elementuez gain, lankidetza-erakundeak esku hartzen duten testuinguru askotan zuzenean egiaztatzen ari diren beste bi fenomeno daudela, eta berariazko arreta behar dutela.

Batetik, emakumeen eskubideen atzerakada nabarmendu du, eztabaidan aipatutako hainbat herrialdetan bereziki kezkagarria den joeratzat jotzen baitu. Adierazi du erakundeek berdintasunaren, partaidetza politikoaren, emakumeen autonomiaren eta haien eskubideen bermearen arloan lortutako aurrerapenak ahultzen ari direla ikusten dutela, eta horrek lankidetza-estrategietan ikuspegi feministak mantentzera eta indartzera behartzen duela.

Bestetik, migratzaileei eta errefuxiatuei zuzendutako diskurtsoak eta politikak gogortzen ari direla ohartarazi du; adierazi duenez, errealitate horrek ez die soilik tradizionalki migratzaileak hartzen dituzten herrialdeei eragiten, baita jatorrizko eta igarobideko herrialdeei ere. Uste du Hego-Hego migrazio-fluxuak eraldaketa esanguratsuak izaten ari direla eta erantzun instituzionalak gero eta murriztaileagoak eta azkarragoak direla.

Haren iritziz, bi fenomeno horiek irakurketa politiko sakona eskatzen diote euskal lankidetzari, testuinguru konplexu horietan esku hartzen nola jarraitu eta tokiko eragile eta gizarte-erakundeekin aliantzak eraikitzen nola jarraitu hausnartu ahal izateko.

Halaber, azpimarratu du lankidetza-tresnak teknikoki egokitzea ere beharrezkoa dela. Ezinbestekotzat jo du prozedurak, kudeaketa-mekanismoak, administrazio-betekizunak eta abar berrikustea, erakundeek beren lana garatzen jarraitu ahal izango dutela bermatzeko. Funtsezkoa da kudeaketa- eta justifikazio-eskakizunak lankidetzari eta tokiko eragileei ematen zaien laguntzari eusteko beharrarekin bateragarri egitea ahalbidetuko duten formulak aurkitzea.

Uste du une honetan abian den hausnarketa estrategikoa egiteko prozesuak aukera egokia eskaintzen duela eraldaketa horiek eta bai politiketan bai lankidetzako tresnetan egin daitezkeen egokitzapenak aztertzeko.

Iñaki Orubek bat egin du hausnarketekin, eta adierazi du ados dagoela erakundeen arteko aliantzak indartzearen garrantziarekin; azpimarratu du aliantza horietan lankidetza-erakundeak eta haien tokiko erakunde bazkideak ere berariaz hartu beharko liratekeela kontuan, testuinguru horietan lanean jarraitzen baitute, nahiz eta lehen posible ziren jarduteko moduez bestelakoak erabili.

Adierazi du, kasu askotan, erakundeek giza eskubideen aldeko laguntza- eta defentsa-estrategiak egokitu behar izan dituztela lurraldean presente jarraitu ahal

izateko. Azaldu du lanean jarraitzen dela, dauden murrizketak gorabehera aktibo jarraitzen duten gizarte-erakundeei eta tokiko mugimenduei laguntzeko eta haiekin artikulatzeko formula berrien bidez.

Ildo horretan, nabarmendu du tokiko erakunde bazkideek funtsezko zeregina betetzen jarraitzen dutela partaidetza-espazioei eusten eta komunitate-lidergoak indartzen. Emakumeen erakundeekin egiten jarraitzen den lana aipatu du; erakunde horiek ahalduntzearekin, lidergo politikoarekin, herritarren partaidetzarekin eta erresistentzia demokratikoarekin lotutako prozesuak sustatzen jarraitzen dute, gero eta aurkakoagoak diren testuinguruetan.

Horregatik, uste du tokiko agintariak eta espazio instituzionalak indartzearekin batera, lurraldeetan aktibo jarraitzen duten gizarte zibileko erakundeei eta gizarte-mugimenduei laguntza eman behar zaiela. Haren iritziz, bi dimentsioak estrategia osagarritzat hartu behar dira espazio demokratikoen itxierari aurre egiteko erantzun beraren barruan.

Amaitzeko, adierazi du lankidetza-erakundeek urteak daramatzatela testuinguru konplexuetan laguntza- eta egokitzapen-lan hori egiten, eta garrantzitsutzat jo du etorkizuneko estrategia eta aliantza instituzionalek tokiko erakundeekin eta kolektiboekin batera egindako lanaren dimentsio hori ere aitortzea eta indartzea.

Aurkezpenaren balorazio positiboa egin denez, Koordinakundeak aurkezpena eta azterlanaren gainerako ondorioak argitaratzeko eta partekatzeko konpromisoa hartu du.

7. EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEAREN JARDUNALDIEI ETA LANKIDETZA DESZENTRALIZATUAREN JARDUNALDIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Lehendakariak Euskadiko GGKEen Koordinakundeko koordinatzaile nagusi Irene Molerori eman dio hitza. Gai-zerrendako hurrengo puntua aurkeztu du, garapenerako lankidetzako autonomia-erkidegoetako koordinakundeen urteko topaketari buruzkoa.

Azaldu du Euskadiko GGKEen Koordinakundea, gainerako autonomia-erkidegoetako koordinakundeekin eta Estatuko Koordinakundearekin batera, lan-sare egonkor baten parte dela, eta sare horrek esperientziak partekatzeko, arazo komunak identifikatzeko, ikaskuntzak trukatzeko eta nazioarteko lankidetzaren eta elkartasunaren arloan jarduera-ildo bateratuak sustatzeko aukera ematen duela.

Adierazi du sare hori artikulatzeko espazio nagusietako bat autonomia-erkidegoetako koordinakundeek urtero egiten duten topaketa dela. Adierazi du topaketa hori lurraldez lurralde egiten dela txandaka, eta, Euskadin egin gabe hainbat urte igaro ondoren, oraingoan Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola bilera antolatzea eta hartzea.

Azaldu du antolaketa-lanak hasi zituztenean ziurgabetasun-elementu batzuk sumatzen zirela jada Estatuko testuinguruan, nahiz eta aitortu duen azken

hilabeteetan faktore horiek areagotu egin direla eta sektore osoarentzat garrantzi handiagoa hartu dutela. Estatuko lankidetzaren testuinguruak aldaketa esanguratsuak izan ditu hainbat autonomia-erkidegotan izandako gobernu-konfigurazioen ondorioz. Adierazi du Extremadura, Andaluzia edo Aragoi bezalako lurraldeetan garapenerako lankidetzako eta nazioarteko lankidetzako politikek nabarmen galdu dutela garrantzi instituzionala edo, kasu batzuetan, jarduteko gaitasunaren zati handi bat galdu dutela.

Eszenatoki horretan, nabarmendu du Katalunia eta Euskadi bezalako erkidegoak erreferente bereziki garrantzitsu bihurtu direla, eta, horregatik, autonomia-erkidegoetako koordinakundeen urteko topaketa Euskadin egitea gaur egun zailtasun handiagoei aurre egiten dieten beste lurralde batzuetako erakunde eta koordinakundeei topaketarako eta laguntzarako espazio bat eskaintzeko aukera gisa ere ulertu dela.

Gaineratu du, eLankidetzarekin izandako elkarrizketen ondoren, urteko topaketa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera sustatutako jardunaldi batzuekin osatzea erabaki zela. Bi ekimenen helburua da garapenerako lankidetzaren defentsaren inguruko eztabaida publikoa eta politikoa indartzea eta, bereziki, lankidetza deszentralizatuarena, berezko nortasuna duen eta giza eskubideen defentsari, justizia globalari edo gizarte-eraldaketari berariazko ekarpena egiten dion politika publiko gisa.

Azkenik, jakinarazi du jardunaldiak Donostian egingo direla urriaren 22tik 24ra, eta aurrerago zehaztuko direla programaren eduki zehatza eta aurreikusitako jarduerak.

Jarraian, Javier Cortések hartu du hitza, eta azaldu du, GGKEen Koordinakundearekin batera antolatutako topaketa baliatuz, urrats bat gehiago eman eta erakunde publikoen artean hausnarketarako eta trukerako berariazko espazio bat ere sortu nahi izan dela. Ildo horretan, jakinarazi du urriaren 21ean, koordinakundeen topaketaren aurretiko jarduera gisa, Estatuko hainbat administrazio, agentzia eta erakunde publikotako lankidetza-arduradunei zuzendutako jardunaldi bat egingo dela.

Adierazi du asmoa nahita irekia eta osagarria den formatu bat diseinatzea dela, espazio instituzionalen eta gizarte zibiletik sustatutako espazioen arteko elkarreragina bultzatzeko. Azpimarratu du elkarlanean aritzeko logika hori lankidetza-politikak maila eta eragile anitzeko gobernantzatik eraiki behar direlako ustean oinarritzen dela, administrazio publikoen, gizarte-erakundeen eta nazioarteko lankidetzan inplikatutako beste eragile batzuen arteko elkarlana oinarri hartuta.

Halaber, jakinarazi du deialdi ofiziala laster egingo dela. Adierazi du hilaren 21eko jardunaldi instituzionala Bilbon egingo dela, eta koordinakundeen topaketarekin lotutako jarduerak, berriz, Donostian.

Amaitzeko, nabarmendu du lurralde-banaketa horrek Euskadiren aniztasun instituzionala eta lurralde-aniztasuna islatzeko borondateari ere erantzuten diola, bai eta sustatu nahi den lankidetza-ereduarekin koherentea den irudia helarazteko borondateari ere.

8. ESKAERAK ETA GALDERAK

Idazkaritzak gai-zerrendako azken puntua hasi du. eLankidetzak bultzatutako eta gaur egun abian dauden ebaluazio-lanen berri eman du. Azaldu du ebaluazio-prozesu hori azken hilabeteetan egiten ari direla, eta irailean lan-bilkura bat egitea aurreikusten dela, emaitza nagusiak partekatzeko eta interesa duten eragileen ekarpenak jasotzeko. Adierazi du laster gonbidapen formal bat bidaliko zaiela inplikatutako erakundeei, jardunaldi horretan parte har dezaten.

Halaber, jakinarazi du eLankidetza 2014tik 2024ra bitartean Agentziak lagundutako emakumeen ahalduntze-prozesuen ebaluazioa egiten ari dela. Adierazi du lan hori fase aurreratuan dagoela gaur egun, azken zirriborro bat dagoeneko eginda dagoela, eta asmoa dela, era berean, emaitzen itzulketa-saio bat antolatzea, azterlanaren ondorio nagusiak aurkezteko eta parte hartu duten eragileekin kontrastatzeko.

Azkenik, iragarri du datozen asteetan bi jardunaldietarako deialdiak bidaliko direla, interesa duten erakundeen partaidetza errazteko eta bi ebaluazio-prozesuen azken emaitzak aberasteko helburuarekin.

Jesús Ochoak eLankidetzak 2027ko ekitaldirako dituen aurrekontu-aurreikuspenei buruzko galdera bat egin du. Adierazi du kezka dagoela lankidetzara bideratutako baliabideek etorkizunean izango duten bilakaeraren inguruan, bereziki hainbat administrazio publiko beren aurrekontuak eta lehentasunak berrikusten ari diren testuinguru batean.

Gogorarazi du aurreko urtean jada hausnarketa bat partekatu zela hurrengo ekitaldietako aurrekontu-plangintza gidatu lezaketen irizpide eta orientazio nagusiak aurreratzeko beharrari buruz, eta, ildo horretan, Agentziari galdetu dio zer ildo estrategiko edo lehentasun indartzea aurreikusten duen 2027ko aurrekontuari begira.

Halaber, adierazi du ulertzen duela aurrekontua egiteko prozesua oraindik lanketa-fasean dagoela eta faktore ugarik eragin dezaketela eskuragarri dauden baliabideen behin betiko zehaztapenean. Hala ere, interesgarritzat jo du jakitea eLankidetzak gaur egun lehentasunezkotzat zer joera edo eremu identifikatzen dituen, bai eta norantz uste duen bidera litekeela datozen urteetan aurrekontu-ahalegina ere.

Adierazi du informazio hori izatea baliagarria izango litzatekeela erakundeentzat, beren lana planifikatzeko eta estrategiak euskal lankidetza-politikaren etorkizuneko orientabideetara egokitzeko.

Ander Caballerok erantzun du, oro har, Eusko Jaurlaritzak mantentzen duen orientabidea Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Lege berria onartu zenetik

defendatu den bera dela. Adierazi du erakundearen konpromisoa arau horretan ezarritako helburuak eta konpromisoak betetzeko bidean pixkanaka aurrera egitea dela oraindik ere, lankidetzako politika publikoa indartuz eta datozen urteetan haren garapena sendotuz.

Zehaztu du urteko une honetan, oraindik plangintza- eta aurrekontua egiteko prozesu bete-betean, ezin dela kopuru zehatzik eman, ezta 2027ko aurrekontuari buruzko behin betiko erabakirik aurreratu ere. Planteatutako kezkaren egokitasuna aitortu du, eta bat dator aurrekontu-informazioa urtearen azken txanpan soilik iristea saihestearen komenigarritasunarekin.

Horregatik, proposatu du gai hori berariaz aztertzea urrirako aurreikusitako bilkuran, urte amaierako bilkuretara itxaron beharrean; izan ere, positiboa litzateke Kontseiluarekin partekatzea, aurrekontuak behin betiko onartu aurretik eztabaidatu eta kontrastatu ahal izateko.

Amaitzeko, adierazi du, une honetan 2027rako kopuru zehatzik eman ezin duen arren, lan-ildoak eta helburu politikoak berberak izaten jarraitzen dutela: euskal lankidetza indartzeko konpromisoari eustea eta legeak ezarritako helburuak betetzeko bidean aurrera egitea. Halaber, aurrekontu-informazioa Kontseiluari helarazteko konpromisoa hartu du, behar bezain zehaztutako eszenatoki bat dagoen bezain laster, eztabaida lehenago egin ahal izateko eta erakundeek informazioa abenduan bakarrik izatea saihesteko.

Javier Cortések erantzun du planteatutako gaiak zuzeneko lotura duela gaur egun egiten ari diren lanarekin eta datozen hilabeteetan eraiki nahi den plangintza-prozesuarekin. Adierazi du helburua aurrekontu-hazkundearen ibilbidea zehaztea ez ezik, hazkunde horrekin batera joan behar duen esparru kualitatiboa eraikitzea ere badela. Gogorarazi du Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legeak lankidetzaren politika publikoa indartzeko agenda bat ezartzen duela, igoera ekonomikoetatik harago doana eta giza eskubideen ikuspegiarekin, eragile anitzeko partaidetzarekin, maila anitzeko gobernantzarekin eta lankidetzaren eraldaketa-gaitasunarekin lotutako elementuak jasotzen dituena.

Ildo horretan, azaldu du planteatzen ari den lanaren zati garrantzitsu bat dela, hain zuzen ere, datozen urteetarako aurreikusitako aurrekontu-bilakaerarekin batera joan behar duten edukiak, lehentasunak eta orientabide estrategikoak zein izan behar diren modu partekatuan zehaztea.

Gaineratu du partaidetza-prozesuaren bidez eraiki nahi den esparru kualitatiboak etorkizuneko hazkunde-ibilbidea bideratzeko eta araudian ezarritako helburuei modu koherentean heltzeko ere balioko duela. Ondoren, hausnarketa hori dagokion aurrekontu-azterketarekin eta ekitaldi bakoitzerako planteatuko diren proposamen zehatzen definizioarekin osatu beharko da.

Azkenik, adierazi du eLankidetzaren eta Eusko Jaurlaritzaren borondatea bi dimentsioetan, kuantitatiboan eta kualitatiboan, aldi berean lan egitea dela,

aurrekontu-hazkundea indartu nahi den lankidetza-ereduari buruzko hausnarketa partekatu batekin batera joan dadin. Amaitzeko, adierazi du hori dela, hain zuzen ere, datozen hilabeteetan hasiko den prozesuan euskal lankidetza-sistemako eragileekin batera eraikitzea proposatzen den esparrua.

Jesús Ochoak adierazi du zaila dela lankidetzara bideratutako baliabide publikoen bilakaeraren ikuspegi osoa izatea, azterketa eLankidetzaren aurrekontura soilik mugatzen denean. Ildo horretan, planteatu du hurrengo ekitaldietarako aurrekontu-aurreikuspenak aurkezten direnean baliagarria izango litzatekeela Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuek egindako ekarpenari buruzko informazioa ere izatea. Haren iritziz, horrek lankidetzaren arloan egindako ahalegin globala zehaztasun handiagoz baloratzea eta legean ezarritako konpromisoei lotutako adierazleen bilakaera behar bezala kokatzea ahalbidetuko luke.

Azpimarratu du komenigarria dela bai eLankidetzaren berariazko aurrekontua, bai administrazio guztien ekarpen agregatua kontuan hartzea, hazkunde-ibilbidearen azterketa ikuspegi osoago eta integralago batetik egin ahal izateko.

Eztabaida labur baten ondoren, Natxo Rodríguezek adierazi du beharrezkotzat jotzen duela Kontseiluak aurrekontuaren gaia berariaz aztertu ahal izatea urrirako aurreikusitako bilkuran. Ohartarazi du garrantzitsua dela erakunde desberdinen aurrekontuak egiteko egutegiak kontuan hartzea. Azaldu du, Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, une honetan hainbat aurrekontu-eszenatoki lantzen ari badira ere, behin betiko zenbatekoak ez direla barne-izapidetzaren azken faseetara arte ixten.

Adierazi du, ohiko epeen arabera, aurreikusita dagoela Foru Gobernu Kontseiluak aurrekontuen proiektua urriaren amaieran onartzea, eta, hain zuzen ere, aurreko asteetan zehazten direla behin betiko zenbatekoak. Horregatik, uste du bilkura goizegi egiteak behar bezain finkatutako informazioa helarazteko aukera zaildu lezakeela.

Ondorioz, proposatu du, 2027rako aurrekontu-aurreikuspenei buruzko eztabaida Kontseiluan txertatu nahi bada, bilkura urriaren amaiera aldera egitea aztertzea, erakunde desberdinek eszenatoki aurreratuagoak eta behin betiko proposamenetik hurbilago daudenak dituztenean.

Horrela, zenbatekoek dagozkien onarpen-prozesuen mende jarraituko badute ere, behar bezain zehaztutako estimazio bat izango dute eztabaida oinarrituago bat egiteko, eta administrazioek informazioa zehaztasun handiagoz partekatu ahal izatea erraztuko da.

Nati Campillok hitza hartu du, lehenik eta behin, Venezuelak bizi duen larrialdi-egoeraren aurrean euskal erakundeek erakutsitako sentsibilitatea eta emandako erantzuna eskertzeko. Halaber, konpromiso horri etorkizunean eustera eta bereziki konplexuak diren beste testuinguru batzuetarako antzeko erantzunak ematen jarraitzera animatu du. Zehazki, gatazka luzeek, krisi humanitario iraunkorreko

egoerek, espazio demokratikoen itxierek edo hondamendi naturalek eragindako herrialdeak aipatu ditu, egoera horiek biztanleak babesteko eta laguntzeko premiazko beharrak sortzen baitituzte.

Bestalde, positiboki baloratu ditu Bizkaiko Foru Aldundiak larrialdiei erantzuteko formula berriak aztertzeko egindako ahaleginak, Bizkaia Larrialdietarako Funtsa sortzeko proiektuari erreferentzia eginez. Ekimena oraingoz abian jarri ezin izana deitoratu duen arren, erakundeek krisi humanitarioen aurrean erantzuteko gaitasuna indartzea ahalbidetuko duten alternatibak aurkitzeko lanean jarraitzea espero duela adierazi du.

Ander Caballerok erantzun du gai hori eLankidetzaren azken Kontseilu Errektorean aztertu zela jada. Azaldu du, ekintza humanitarioko ohiko tresnen barruan aurreikusita zeuden baliabideez gain, Agentzia Venezuelako egoerari erantzuteko ekarpen gehigarri bat egiteko aukera aztertzen ari dela.

Adierazi du, larrialdiaren berehalako fasea gainditu ondoren, beharrezkoa dela euskal lankidetzak zer ekarpen eraginkor egin dezakeen baloratzea, aurreikuspenen arabera denbora luzez konplexua izaten jarraituko duen testuinguru batean. Ildo horretan, adierazi du asmoa dela ekarpen osagarri batek eragin handiagoa izan eta dauden beharrei hobeto erantzun ahal dien eremuak identifikatzea.

Gaineratu du gaur egun baliabide gehigarri horiek nola eta nora bideratu aztertzen ari direla, erantzun premiazkoenaren etapa igaro ondoren eragindako biztanleei laguntzen jarraitzeko helburuarekin.

Beste eskaera edo galderarik egin ez denez, lehendakariak bertaratutako pertsonek izandako parte-hartzea eta egindako lana eskertu ditu, eta Kontseiluko kideak urteko azken hiruhilekorako aurreikusitako hurrengo ohiko bilkurara deitu ditu.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilkura 11:53an amaitu da.

IRANTZU ORTEGA BARRIO
LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARITZA

ANDER CABALLERO BARTUREN
LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUKO LEHENDAKARIA